

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## AGURAINGO UDALA

## 2022-2024 Dirulaguntzen plan estrategikoaren bosgarren aldaketa

Aguraingo udalbatzak, 2024ko azaroaren 28an egindako ohiko bilkuran, 2022-2024 ekitaldi-rako dirulaguntzen plan estrategikoaren bosgarren aldaketa hau onetsi zuen:

1) 2022-2024 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea, dirulaguntzen lerro hau sartuz:

Arloa: Gizarte-larrialdiko arloa.

Dirulaguntzen lerroa: Valentziako Generalitateari egindako ekarpena, goialdeko depresioak eragindako kalteei aurre egiteko.

1. Helburu estrategikoak	Goialdeko depresioak eragindako kalteei aurre egiteko gizarte-larrialdiko laguntza
2. Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Ekarpen hau Valentziako Generalitateari zuzenduta dago, Som Solidaritat atariaren bidez
3. Helburu zehatzak eta aplikazioaren bidez lortu nahi diren eraginak	Goialdeko depresioak eragindako kalteak arindu nahi dira
4. Denbora tartea / Gauzatzeko beharrezko epea	2.024
5. Aurrera eramateko aurreikusten diren kostuak eta finantziazio iturriak	10.000 euro, baliabide propioak
6. Ekintza plana: hitzarmen bidezko dirulaguntzen lerroa, eskubide eta betebeharrekin arautzen duten oinarriak ezartzen dira	Lurraldeen arteko elkartasuna interes sozialagatik Diru-laguntza izenduna
7. Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerkusia duten adierazleak	Dirulaguntzen lerro honen jarraipena dirulaguntzen araudi erregulatzailera betez egingo da
8. Dirulaguntza emateko araubidea / modalitatea	Zuzena / Nominatiboa
9. Onuradunak	Valentziako Generalitatea, Som Solidaritat-en atariaren bidez
10. Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da?	Ez
11. Eragindako aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k)	2024ko aurrekontu partida 231.481.006 – Larrialdietarako fondoak

2) Aldaketa hori ALHAOn, udalaren webgunean eta Aguraingo Udalaren iragarki taulan argitaratzea.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Agurain, 2024ko abenduaren 26a

*Alkatea*

**RAUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR**